



Demande d'aide financière de la Ville de Bayonne pour le projet Irakur

Baionako Hiriaren diru laguntza eskaera Irakur proiektuarentzat

Contexte :

En 2014, les institutions publiques en charge de la lecture publique ont défini un programme d'action dont l'objectif est d'améliorer la prise en compte de la langue et de la culture basques dans le réseau de lecture publique en encourageant, via une intervention coordonnée des différents partenaires, les bibliothèques et les médiathèques à intervenir simultanément sur la constitution des fonds et sur leur valorisation, pour que ces équipements puissent offrir aux habitants du territoire un égal accès à la lecture, à l'information et à la culture, y compris dans le domaine des langues et cultures régionales. Les partenaires participant à ce programme d'action sont Bilketa, la BDPA, la DRAC, l'ICB et l'OPLB.

Le programme rend compte du récent changement survenu dans le paysage de la lecture publique suite à l'apparition d'un nouvel acteur majeur, Bilketa. Le projet Bilketa constitue un service documentaire territorial à l'échelle du Pays Basque de France spécialisé dans les fonds basques et disposant d'un outil informatique documentaire en réseau. Le projet a été récemment pérennisé par la signature d'un contrat territoire lecture en 2014 et l'inauguration de son portail numérique a eu lieu le 30 avril 2015. Bilketa prendra progressivement à sa charge un certain nombre de missions dont l'expertise sur la production contemporaine en langue basque pour les professionnels et la valorisation de l'offre éditoriale contemporaine en langue basque en direction du grand public.

Présentation du projet :

Dans le cadre de son partenariat avec l'OPLB visant à développer la présence de la langue basque sur son territoire, la Ville de Bayonne sollicite l'Office public pour le financement du projet *Irakur*.

Irakur! (Lis! en basque), vise à promouvoir la lecture et la littérature en langue basque, et plus largement la découverte, la connaissance et la pratique éventuelle de cette langue sur tous types de supports. A l'occasion de cet événement qu'elle organise depuis 2009, la Médiathèque propose un éclairage particulier sur son fonds en langue basque par l'édition d'un catalogue de sélections (une cinquantaine d'ouvrages récents en langue basque) et la proposition d'animations pour enfants et adultes.

Testuingurua :

2014an, irakurketa publikoan eskudun diren instituzioek lan programa bat definitu dute, partaide bakoitzaren parte hartzea definituz, irakurketa publikoko sarean euskarak eta euskal kulturak leku gehiago ukan dezaten, liburutegiak eta mediatekak fondoan osaketaz gain haien balorizazioan ere lan egitera sustatu behar direla helburu. Oronen buru, irakurketa publikoko ekipamenduek herritar guziei irakurketa, informazio eta kultura eskaintza bera zabal dezaten, lekuko kulturen eta hizkuntzen arloari doakiona barne. Lan programa honen partaideak Bilketa, BDPA, DRACa, EKE eta EEP dira.

Programak berriki sortu den Bilketaren sortzeak irakurketa publikoko paisaian ekarri aldaketak kontutan hartzen ditu. Euskal Herri mailako zerbitzu dokumental bat da Bilketa, proiektua euskal fondoetan berezitua dena eta sarean den tresna informatiko dokumentala duena. 2014an izenpetu zen irakurketa lurralde kontratu batek bermatzen du eta Bilketaren atari numerikoa 2015eko apirilaren 30an estreinatu zen. Progresiboki, Bilketak misio berezi zombait bere gain hartuko ditu, hara nola profesionali begira gaur egungo euskarazko ekoizpenaz jakitatea eta gaur egungo euskarazko eskaintza editorialaren balorizazioa publiko zabalari buruz.

Proiektuaren aurkezpena :

Baionako Hiriak bere lurraldean euskararen presentziaren garatzeko EEPekin duen partaidetzaren barnean, *Irakur* proiektuaren finantzamendurako laguntza eskatzen dio.

Irakur! proiektuak euskarazko irakurketa eta literatura sustatzea du helburu eta berezikiago, euskarri orotan hizkuntzaren deskubritzea, ezagutzea eta ahalaz erabiltzea. 2009az geroz antolatzen duen gertakari honen kariatara, Mediatekak duen euskarazko fondoaren aurkezpen berezia eskaintzen du, hautaketa katalogo baten argitalpenaren (berrogeita hamar bat obra) eta haur eta helduendako animazioen bitartez.

Forte de l'expérience des années précédentes, elle souhaite proposer cette année encore une action plus étoffée. Soirées littéraires, musicales, ateliers pour le jeune public... ponctueront ce mois de la langue basque.

Elle s'appuie pour ce faire sur des partenariats étroits avec l'Institut culturel basque, la Bibliothèque Départementale des Pyrénées-Atlantiques mais aussi l'Inspection académique. L'organisation d'une journée d'information destinée aux professionnels des bibliothèques traitant cette année de la presse basque sera maintenue et renforcée. Les activités proposées attirent un public issu de zones géographiques variées attestant ainsi du rayonnement d'Irakur bien au-delà de la cité de Bayonne.

Lors des sessions à venir, la médiathèque de Bayonne sera en mesure de s'appuyer sur le réseau Bilketa pour la mise en place des différents temps que composent Irakur, et notamment en ce qui concerne la valorisation de l'offre éditoriale contemporaine en langue basque.

Dans l'attente de la mise en place opérationnelle progressive des missions de Bilketa, la Ville sollicite l'OPLB pour les coûts afférents à l'édition du catalogue bilingue et la mise en place d'une communication bilingue, pour un montant de 1.400 €, soit 22 % du budget global qui s'élève à 6.260 €.

Délibération :

L'Assemblée générale de l'OPLB décide :

- de répondre favorablement et pour la dernière fois à la sollicitation de la Ville de Bayonne et d'intervenir sur le financement de l'édition du catalogue et des supports de communication, dans la limite de 1.100 €, et sur la base des justificatifs produits.
- d'engager sur le budget 2015 une enveloppe budgétaire de 1.100 € pour permettre ce financement.

Adopté à l'unanimité.

Aitzineko urteetako esperientzietan bermatuz, aurten ekimen osatuagoa eskaini nahi luke. Literatura eta musika arratsak, publiko gaztearendako tailerrak... izanen dira euskararen hilabete horretan.

Horren egiteko, Euskal Kultur Erakundearekin, Departamenduko Maileguen Biblioteka baita Akademia ikuskaritzarekin dituen partaidetza hertsietan oinarri hartzen du. Profesionalei zuzendu informazio egun baten antolatzea (irakasleak eta mediateketako profesionalak), atxikia eta azkartua izanen da : aurten jorratuko den gaia euskal prentsa izanen delarik. Irakur-en baitan eskainiak diren aktibitateek zonalde ezberdinetatik heldu den jendea erakartzen dute, Baionako hiria baino haratagokoa.

Ondoko edizioen sortzerakoan eta haien baitan eskainiko diren aktibitateen sortzerakoan, Baionako mediateka Bilketa sarean bermatzen ahalko da, hara nola gaur egungo euskarazko eskaintza editorialaren balorizatzeko.

Bilketaren misioen plantatze operatiboaren zain, Baionako hiriak, katalogo elebidunaren argitalpenak eta komunikazio elebidunaren antolaketak eragin gastuentzat eskatzen dio laguntza EEPri, 1.400 €ko heinean, hau da 6.260 €-ko aitzinkontu osoaren % 22arentzat.

Erabakia :

EEP-ko Biltzar Nagusiak erabakitzen du :

- Baionako Hiriaren eskakizunari azken aldikotz baikorki erantzutea eta katalogoaren eta komunikazio euskarrien argitalpenean parte hartzea 1.100 €raino eta aurkeztu justifikagiritan oinarrituz.
- 2015ko aitzinkontuan 1.100 €ko diru-zama baten engaiatzea, finantzamendu horren ahalbidetzeko.

Aho batez onartua.